

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan, gure proiektuak funtziona dezan funtsezkoak diren baliabideak definituko ditugu. Elementu hauekin, gure balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea lortuko dugu. Baliabide hauek lau atal desberdinetan banatu ditugu: Giza baliabideak, fisikoak, finantzarioak eta intelektualak.

Lehenik eta behin, giza baliabideak azalduko ditugu. Ukigarriak diren funtsezko baliabideez gain, *Lera Style*-ek arrakasta izan dezan taldekide bakoitzak bere esperientzia, abileziak, formakuntza... aportatzea ezinbestekoa izango baita. Garazik guretzako oso garrantzitsua den sormena aportatuko dio proiektuari, bai gure webgunea sortzeko eta bai gure enpresaren muina, hau da, panpinak diseinatzeko beharrezkoa izango dena. Era berean, Aitorrekin batera, gure aliantzekin negoziatu eta tratua edukiko dute, hauekin harremana mantentzea ezinezkoa baita. Gaitasun hau nahitaezkoa da gure enpresarentzat, bestela, panpinak saltzeko modua asko zailduko litzaiguke. Bestalde, Martinak sare sozialak eta marketing-a maneiatzeko duen abileziaz baliatuko gara gure publizitatea aurrera eramateko. Gainera, enpresen ekonomiaren inguruan duen formakuntza ederki etorriko zaigu negozioaren alderdi ekonomikoa antolatu eta kontrolatzeko. Aitorrek, berriz, Garazirekin batera gure aliantzekin tratua izateaz gain, produktuak ekoizten duen aurre-ezagutzaz eta esperientziaz baliatuko gara, panpinak ekoizteko. Eta, azkenik, Nesta materialen erosketaz arduratuko den taldekidea izango da, beharrezko hornitzaileak bilatuko ditu eta material egokiak hautatzeaz arduratuko da. Bera aukeratu dugu, akordiotara iristeko eta negoziatzeko dituen gaitasunengatik.

Beste alde batetik, gure enpresak funtziona dezan hainbat baliabide fisiko erabili beharko ditugu. Bost dira gure ustez funtsezkoenak: nabe industrialak, Espainia eta AEBn, makineria, materialak, mugikorrak eta ordenagailuak. Lehen hirurak funtsezkoak dira gure enpresarentzat, panpinen ekoizpenean baitaude zentratuta. Lehenik, oihala eta plastikoa bezalako materialak eskuratuko ditugu hornitzaileen eskutik. Ondoren, materialak nabe industrialetan gorde eta, bertan,



makinekin panpinak ekoitziko ditugu. Mugikorrak eta ordenagailuak, ordea, publizitate eta marketing kontuetarako erabiliko ditugu gehienbat. Mugikorren bidez, sare sozialak kudeatuko ditugu: Tik tok-ak argitaratu, Instagramera post-ak igo... Ordenagailuekin panpinak diseinatu, influencerrekin kontaktua mantendu, webgunea diseinatu eta kudeatu... egingo ditugu.

Horrez gain, gure proiektua aurrera eramateak suposatzen dituen gastuak finantzatzeko, gutako bakoitzak diru kantitate bat jarri beharko du. Hala ere, hori ez da nahikoa izango gastu guztiei aurre egiteko, beraz, gainerako zatia finantzatzeko mailegu bat eskatuko diogu banku bati. Funtsezko elkarteetan aipatu bezala, “Banco Santanderren” laguntzaren bidez egingo dugu finantziaketa, banku honek,, transferentzia internazionalak egiteko erraztasunak ematen dizkigulako eta hori oso onuragarria da guretzat.

Azkenik, baliabide intelektualak azalduko ditugu. Gure enpresak ideia desberdin eta berri bat proposatzen duenez, proiektua gurea dela ziurtatzen duen agiri bat beharko dugu, beste enpresa edo ekintzaile batek gure ideia ez bereganatzeko. Hau da, gorputz ez-normatiboak dituzten panpinak patentatu beharko ditugu. Horrez gain, patentearekin zuzenki lotuta, *Lera Style* ere marka bezala azaldu beharko dugu. Amaitzeko, gure enpresarentzat funtsezkoak diren datuak gordeko dituen datu base bat ere beharko dugu, bezeroen informazioa, hornitzaileen kontaktuak, bezeroengandik jasotako feedbacka eta halakoak gordetzeko.